Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

## LEHIAKETA PUBLIKOA, IRAKASLE LAGUNTZAILE DOKTOREEN KONTRATUAK ESLEITZEKOA

Hauek dira lehiaketa hau gobernatuko duten arauak: 2/2023 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Unibertsitate Sistemarena (2023ko martxoaren 23ko BOE), aurrerantzean LOSU; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutua onartzekoa (2015eko urriaren 31ko BOE); Gobernu Kontseiluaren 2024ko ekainaren 11ko Erabakia; 17/2011 Dekretua, otsailaren 15ekoa, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuak onartzekoa; aplikatu beharreko gainerako arau orokorrak eta, aurreikusita ez dagoenerako, administrazio publikora sartzeko sistema orokorra arautzen duten estatuko xedapenak.

### OINARRIAK

***1.- Lehiaketetan parte hartzeko baldintzak***

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 56 eta 57. artikuluetan jasotakoak (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena).

Lehiakideek bete beharko dituzte baldintza guztiak eskariak aurkezteko epea amaitzen denerako.

***1.1.-Baldintza orokorrak:***

1.- Espainiako nazionalitatea izatea edo Europar Batasunaren estatu kide batekoa, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 57. artikuluari jarraituz (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legea onartzen duena).

2.- Lanpostuari dagozkion zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

3.- Hamasei urte beteta izatea eta, hala dagokionean, nahitaezko erretiroa hartzeko

## CONCURSO PUBLICO PARA LA ADJUDICACIÓN DE CONTRATOS DE PROFESORADO AYUDANTE DOCTOR

El concurso se rige por lo dispuesto en la Ley Orgánica 2/2023 de 22 de marzo, del sistema universitario (BOE 23 de marzo de 2023), en lo sucesivo LOSU; la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas; la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público; el Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público (BOE 31 de octubre de 2015); el Acuerdo del Consejo de Gobierno de fecha 11 de junio de 2024; Decreto 17/2011, de 15 de febrero, por el que se aprueban los estatutos de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea; las normas de general aplicación y, en lo no previsto, las disposiciones estatales que regulan el régimen general de ingreso en la Administración Pública.

### BASES

***1.- Requisitos para participar en el concurso***

Los recogidos en el artículo 56 y 57 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.

Los requisitos de participación de los aspirantes deberán reunirse a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

***1.1- Requisitos de carácter general:***

1.- Tener la nacionalidad española o la de algún estado miembro de la Unión Europea o país extranjero de acuerdo con lo establecido en el artículo 57 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.

2.- Poseer la capacidad funcional para el desempeño de las tareas.

3.- Tener cumplidos dieciséis años y no exceder, en su caso, de la edad máxima de la

gehieneko adinetik gorakoa ez izatea. Enplegu publikora iristeko orduan, lege bidez bakarrik ezarri ahal izango da gehieneko beste adin bat, nahitaezko erretiroa hartzeko adinaz bestelakoa.

jubilación forzosa. Sólo por ley podrá establecerse otra edad máxima, distinta de la edad de jubilación forzosa, para el acceso al empleo público

4.- Diziplina espediente batez inongo administrazio publiko edo autonomia erkidegoko organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik bereizita ez egotea, ezta, ebazpen judizialaren arabera, enplegu edo kargu publikorako desgaikuntza erabatekoa edo berezia izatea ere, bereiziak edo desgaituak izan diren lanpostuaren antzeko eginkizunak betetzeko. Beste estatu bateko herritarra izanez gero, desgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, eta diziplina zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

4.- No haber sido objeto de despido o separación mediante expediente disciplinario de ninguna Administración Pública o de los órganos constitucionales o estatutarios de las comunidades autónomas, ni estar en situación de inhabilitación absoluta o especial para el desempeño de empleo o cargos públicos por resolución judicial, cuando se trata de acceder a la misma categoría profesional a la que pertenecía. En el caso de nacionales de otros estados, no hallarse en situación de inhabilitación o equivalente, ni haber sido objeto de sanción disciplinaria o equivalente que impida en el Estado de procedencia el acceso al empleo público en los términos anteriores.

***1.2.-Deialdiko kategoriaren baldintza espezifikoak:***

1.- Doktore titulua izatea. Atzerriko unibertsitateetako titulua izanez gero, baliokidetza adierazpena eduki beharko da, horretarako salbuespen legalik izan ezean.

2.- Lanpostua atxikita dagoen sailak emandako aldeko txostena, lehiakidearen irakaskuntzarako eta ikerketarako gaitasunari buruzkoa. Sailak txostenik ematen ez badu, aldekoa dela joko da. Baldintza hau deialdi honetako 2.2 oinarriko 2. atalean zehaztutako eran eta epean egiaztatuko da.

***1.2.-Requisitos específicos de la categoría de la convocatoria:***

1.- Estar en posesión del título de Doctora o Doctor. Las titulaciones universitarias extranjeras deberán disponer de la correspondiente declaración de equivalencia, salvo norma por la que se dispense de ésta.

2.- Contar con el informe favorable del Departamento al que esté adscrito la plaza, sobre la capacidad docente e investigadora de la persona candidata. En el caso de no emitirse dicho informe, se considerará favorable. Este requisito se acreditará en la forma y momento previstos en el apartado 2 de la Base 2.2. de esta convocatoria.

**1.3.- Hizkuntza betekizunak:**

1.- Lanpostua elebiduna bada, euskaraz irakasteko gaitasuna honela egiaztatu beharko da: Euskarako errektoreordeak 2002ko ekainaren 5ean emandako Erabakian zehaztutakoari jarraituz (uztailaren 11ko EHAA); Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 mailaren pareko tituluak aurkeztuz (2010eko azaroaren 15eko EHAA); edo apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuari jarraituz (euskaraz egindako ikasketa ofizialak

**1.3.- Requisitos lingüísticos:**

1.- En las plazas en las que, por ser bilingües, sea necesario tener la capacidad para la docencia en lengua vasca, esta capacidad se acreditará conforme a lo establecido en la Resolución del Vicerrector de Euskera de la UPV/EHU de 5 de junio de 2002 (BOPV de 11 de julio) o con la aportación de títulos equivalentes al nivel C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas (BOPV de 15 de noviembre de 2010) o conforme a lo establecido en el Decreto

aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dekretua).

47/2012, de 3 abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera.

2.- EAEn ofiziala ez den hizkuntza bat jakin behar den plazetarako, beharrezkoa izango da kasuan kasuko hizkuntzan irakasteko gaitasuna egiaztatzea, Ofizialak ez diren hizkuntzetan irakaskuntza eskaintzeko egiaztagiria eskuratzeari buruzko Araudian ezarritakoari jarraituz (Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2010eko ekainaren 24koa, abenduaren 2ko EHAA), eta Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2012ko martxoaren 8ko Erabakiaren eranskinean ezarritakoa betez (ofizialak ez diren hizkuntzen baliokidetzari buruzko erabakia).

2.- En las plazas en los que sea requisito lingüístico el conocimiento de una determinada lengua no oficial en la CAPV, será necesario tener la capacidad para la docencia en dicho idioma, capacidad que se acreditará conforme a lo establecido en el Acuerdo, de 24 de junio de 2010, del Consejo de Gobierno de la UPV/EHU por el que se aprueba la Normativa sobre la obtención de la Acreditación para impartir docencia en idiomas no oficiales (BOPV de 2 de diciembre de 2010) y en el Anexo de la Resolución de 8 de marzo de 2012, del Rector de la UPV/EHU, sobre equivalencia de lenguas no oficiales.

### *1.4.-Beste baldintza batzuk:*

1.- Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetara (ikus oharren atala, plazen deskribapenean) lehiatzeko beharrezkoa izango da, baldintza orokor eta espezifikoak betetzeaz gainera, eskariak aurkezteko epea amaitzen denerako 100eko 33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortuta izatea foru aldundietako, autonomia erkidegoko edo estatuko administrazio orokorreko gizarte ongizate sailen ziurtagiriarekin, edo irakaskuntzaz bestelako lanbide batean ezintasun iraunkor osoaren pentsioa aitortuta izatea, baldin eta, kasu batean zein bestean, hori bateraezina ez bada irakaskuntzan jardutearekin eta interesdunak kasuan kasuko kidego eta espezialitateko zereginak betetzeko gaitasun funtzionala baldin badauka.

### *1.4.-Otros requisitos*

1.- En el caso de las plazas reservadas a personal con discapacidad (ver apartado de observaciones en la descripción de las plazas) podrán participar aquellas personas que, además de reunir los requisitos generales y específicos exigidos para el acceso a la plaza correspondiente , tengan reconocida, a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes, por los órganos competentes de los Departamentos de Bienestar Social de las Diputaciones Forales, de la Comunidad Autónoma correspondiente, o, en su caso, de la Administración General del Estado, un grado de discapacidad igual o superior al 33 por 100 o tengan reconocida una pensión de incapacidad permanente en el grado de total en una profesión distinta a la docente, siempre que en ambos casos, no exista incompatibilidad con el ejercicio de la docencia y se posea la capacidad funcional para el desempeño de las tareas propias del citado cuerpo y especialidad a la que se opta.

Hala ere, oposizio faseko probak egiten direnean epaimahaiari zalantzarik sortzen bazaio hautagaiaren gaitasunaz kasuan kasuko plazan eta espezialitatean bete ohi diren zereginetarako, deialdia egin dion organoari jakinaraziko dio, eta horrek irizpena eskatu ahal izango dio organo eskudunari. Kasu horretan, eta irizpena eman arte, lehiakideak baldintzapean parte hartzen jarraituko du hautaketa prozesuan, eta prozesuan onartua edo baztertua izateari behin betiko erabakia hartuko da irizpena jasotzen denean.

No obstante, si durante la realización de las pruebas de la fase de oposición, se suscitaran dudas al Tribunal respecto de la capacidad de la persona aspirante para el desempeño de las actividades habitualmente desarrolladas en la plaza a la que se opta y especialidad a la que opta, lo pondrá en conocimiento del órgano convocante que podrá solicitar el correspondiente dictamen del órgano competente. En este caso, y hasta tanto se emita el dictamen, la persona aspirante podrá seguir participando de forma condicionada en el proceso selectivo, quedando en suspenso la resolución definitiva sobre la admisión o exclusión del proceso hasta la recepción del dictamen

## 2.- Agiriak

### 2.1.- Lehiakideek aurkeztu beharreko agiriak

Lehiaketa honetan parte hartu nahi dutenek ESKARIA aurkeztuko diote Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeari, AGIRI hauek erantsita:

1.- Curriculum eskaria, behar bezala betea, eta harekin batera bertan alegatutako merezimenduen ziurtagiriak, irakaskuntza programaren eta ikerketa proiektuaren merezimenduak barne. Eskaria aurkeztean alegatu ez den merezimendurik ez da kontuan hartuko, eta halakoez ezin izango da ez aurkezpenik ez eztabaidarik egin proba teorikoan. Alegatutako merezimendu guztiak eduki beharko dira eskariak aurkezteko epea amaitzen denerako.

Plaza batera baino gehiagotara aurkezten direnek bakoitzerako eskari bana aurkeztu beharko dute, horietako bakoitzari dagokion dokumentazio osagarriarekin batera. Curriculum-eskarien ereduak deialdiaren oinarrietan egongo dira, eta unibertsitatearen webgunean argitaratuko dira.

## 2.- *Documentación*

### *2.1.-Documentación a presentar por las personas concursantes*

Quienes deseen tomar parte en el presente concurso, deberá presentar la siguiente documentación dirigida al Sr. Vicerrector de Personal Docente e Investigador de la UPV/EHU,

1.- Instancia-curriculum debidamente formalizada y documentación acreditativa de los méritos alegados en el curriculum, incluyendo los méritos de Programa Docente y Proyecto de Investigación. No se valorarán méritos no alegados junto con la solicitud, ni podrán ser objeto de exposición y debate en la prueba teórica. Todos los méritos alegados por los aspirantes deberán poseerse en la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes.

Las personas que opten a más de una plaza habrán de presentar una solicitud independiente para cada una de ellas, acompañada de la documentación complementaria. Los modelos de instancia-currículum están incluidos en las bases de la convocatoria publicada en la página web institucional.

Gaztelania hizkuntza ofizialtzat ez daukaten herrialdeetako hautagaiek gaztelaniazko C1 maila egiaztatu beharko dute, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera.

La candidata o el candidato de nacionalidad extranjera de un país que no tenga el castellano como lengua oficial deberá acreditar el nivel castellano C1, conforme al Marco Común Europeo de Referencias de Lenguas, en español.

2.- Indarrean dagoen NANaren edo pasaportearen fotokopia.

2.- Fotocopia de DNI o pasaporte en vigor.

3.- Doktore tituluaren fotokopia soila edo, hori eduki ezean, titulua lortzeko eskubideak ordaindu egin direla adierazten duen egiaztagiria.

3.- Fotocopia simple del título académico de Doctora o Doctor, o, en su defecto, fotocopia de la certificación supletoria del mismo que se emite una vez que se han abonado los derechos para su expedición.

Doktore titulua atzerrian lortu bada, honako hauetako bat aurkeztu beharko da, aintzat har dadin:

- Doktore mailarekiko baliokidetza adierazpena, titulua eman duen unibertsitateak emana, bat etorrita urriaren 18ko 899/2022 Errege Dekretuan zehaztutako prozedurarekin (2022/10/19ko BOE).
- Titulua balioduna dela zehazten duen alde biko edo alde anitzeko nazioarteko akordioa edo hitzarmena (822/2021 Errege Dekretua, irailaren 28koa, Unibertsitateko irakaskuntzen antolaketa eta irakaskuntza horien kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituena, 2. xedapen gehigarria).

En el caso de que la titulación exigida de Doctora o Doctor, se haya obtenido en el extranjero, su validez estará condicionada bien:

- A su declaración de equivalencia al nivel académico de Doctora o Doctor. La declaración de equivalencia se acreditará mediante el certificado de equivalencia expedido por la Universidad que la otorgue conforme al procedimiento previsto en el Real Decreto 899/2022, de 18 de octubre (BOE 19/10/2022).
- A la existencia de acuerdos o convenios internacionales bilaterales o multilaterales que expresamente establezcan dicha validez (Disposición adicional 2ª del Real Decreto 822/2021, de 28 de septiembre, por el que se establece la organización de las enseñanzas universitarias y del procedimiento de aseguramiento de su calidad).

4.- Zinpeko aitorpena, adierazten duena lehiakidea ez dagoela diziplina espedientearen bidez administrazio publikoetatik aldenduta, ez eginkizun publikoak betetzeko ezgaituta ez eginkizunok betetzeko eskubidea etenda.

4.- Declaración jurada de la persona candidata de no haber sido separada, mediante expediente disciplinario, del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas, ni hallarse inhabilitada o suspendida para el desempeño de funciones públicas.

5.- Desgaitasuna duten pertsonek, eskariarekin batera, desgaitasun mailaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana.

5. Las personas con discapacidad deberán presentar, en su caso, junto con la solicitud, el certificado del grado de discapacidad expedido por el órgano competente.

6.- Hurren zehazten diren tasak ordaindu izanaren agiria. Eskariak aurkezteko epearen barruan aurkeztu beharko da tasa

6.- Resguardo acreditativo del abono de tasas que a continuación se detallan. La falta de abono del pago íntegro de la tasa durante

osorik ordaindu izanaren agiria, eta ez da egongo geroago aurkezteko aukerarik. Beraz, epe horretan aurkeztu ezean, hautagaia baztertua izango da.

Lehiakideek frogatu beharko dute lehiaketa bakoitzean parte hartzeko tasak ordaindu dituztela, eta horretarako jatorrizko ordainagiria aurkeztu beharko dute eskariarekin batera. Hauek dira ordaindu beharreko tasak:

- **20,27** euro.

Eskubideak ordaintzeko, kontu korronte honetan egin beharko da sarrera edo transferentzia:

KUTXABANK

UPV/EHU Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza. Irakasleen lehiaketetako tasak.

IBAN zk.: ES73 2095 0292 94 3239002233

Izen-abizenak zehaztu beharko dira bertan, bai eta plazaren zenbakia ere.

***2.2.-Unibertsitateak ofizioz aurkeztu beharreko agiriak:***

1.- Interesdunak UPV/EHUn egindako irakasle lanaren egiaztagiriak.

2.- Lanpostua atxikita duen sailak emandako aldeko txostena, lehiakidearen irakaskuntzarako eta ikerketarako gaitasunari buruzkoa.

Txosten hori Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak eskatuko dio sailari, lehiaketan onartutako eta baztertutako lehiakideen behin betiko zerrenda onartu aurretik.

Sailak kontrako txostena ematen duenean, behar bezala arrazoitu beharko du. Kontrako txostena jasotzen duten lehiakideak deialdi honetako 4. oinarrian aipatzen den behin betiko zerrendatik kanpo geratuko dira, eta horren aurka oinarri horretan bertan aipatzen den

el plazo de presentación de instancias no es subsanable, lo cual determinará la exclusión del aspirante.

Las personas aspirantes deberán justificar, mediante justificante de pago que deberá unirse a la solicitud que se presente para participar en el concurso, haber abonado, por cada una de las plazas que se soliciten, la cantidad de:

- **20,27** euros.

El pago de los derechos se efectuará mediante ingreso o transferencia bancaria a la cuenta corriente siguiente:

KUTXABANK

UPV/EHU Vicerrectorado de Profesorado. Tasas Concursos Profesorado.

Nº. IBAN: ES73 2095 0292 94 3239002233

Especificando el nombre, apellidos y número de orden de la plaza a la que concursa.

***2.2.-Documentación a aportar de oficio por la Universidad:***

1.- La documentación relativa a los servicios docentes prestados en la UPV/EHU será aportada de oficio por la Administración.

2.- Informe favorable del Departamento al que esté adscrito el puesto sobre la capacidad docente e investigadora de la persona candidata.

Este informe se solicitará por parte del Vicerrectorado de Personal Docente e Investigador de la UPV/EHU a los Departamentos afectados con anterioridad a aprobar la lista definitiva de personas concursantes admitidas y excluidas en el concurso.

En caso de que el informe del Departamento relativo a alguna persona concursante sea desfavorable, dicho informe deberá estar especialmente motivado. Las personas concursantes, respecto de las cuales el Departamento emita informe desfavorable, serán excluidas en la lista definitiva de personas concursantes admitidas y

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

berraztertze errekurtsoa aurkeztuko ahal izango dute.

excluidas del concurso al que se refiere la Base 4 de la presente convocatoria, pudiendo presentar contra la misma el recurso de reposición previsto en dicha Base 4.

### 3.- *Eskariak aurkezteko modua*

Instantziak aurkezteko epea **2024ko abenduaren 23tik 2025eko urtarrilaren 16ra** bitartekoa da **(biak barne)**.

Abuztua baliodun izango da ondorio guztietarako.

**Eskaria UPV/EHUko erregistro elektronikoaren bitartez** (https://egoitza.ehu.eus/oficina/tramites/acceso.do?id=8306&block=TRAMITES_GENERALES_1093&blockType=AREAS_SEDE) **aurkeztu behar da,** Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14 e) artikuluaren arabera, eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakiarekin (erabaki horren bidez onartu zen interesdunak eta UPV/EHUko langileak harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibidea). Behin erregistro elektronikoan sartuta, "Deialdi eta Lehiaketa Atalera (U02000368)" bidali behar da. Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili beharko da: UPV/EHUko langileen ziurtagiri elektronikoa, Izenperen ziurtagiri digitala, NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Era berean, eskaria aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan aurkezten diren eskariak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari

### 3.- *Presentación de instancias*

El plazo de presentación de instancias comprenderá desde el **23 de diciembre de 2024 hasta el 16 de enero de 2025, ambos inclusive**.

El mes de agosto se considerará hábil a todos los efectos.

De conformidad con lo establecido en el artículo 14 e) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y en la resolución del Secretario General de la UPV/EHU de 28 de abril de 2021, por la que se aprueba la instrucción sobre identificación y firma electrónica de las personas interesadas en sus relaciones electrónicas con la UPV/EHU y de las personas empleadas que prestan servicios en la misma, **la solicitud deberá presentarse en el registro electrónico de la UPV/EHU**, ubicado en la dirección URL

(https://egoitza.ehu.eus/oficina/tramites/acceso.do?id=8306&block=TRAMITES_GENERALES_1093&blockType=AREAS_SEDE), dirigido a "Unidad de Convocatorias y Concursos" (U02000368). Para ello, se deberá utilizar el certificado electrónico de empleado o empleada de la UPV/EHU, el certificado Digital de Usuario de Izenpe, el DNI electrónico o el certificado de la Fábrica Nacional de Moneda y Timbre FNMT-CERES.

Asimismo, podrá presentarse en los restantes registros electrónicos de cualquiera de las entidades pertenecientes al sector público, y, en casos excepcionales, presencialmente en las oficinas de asistencia en materia de registros de la UPV/EHU. Las solicitudes y documentos presentados en las oficinas de asistencia en materia de registros de la UPV/EHU serán digitalizados para su incorporación al expediente administrativo electrónico, devolviéndose los

itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko berariazko adostasuna adierazi ondoren; guztia bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin, horren bidez onartzen baitira gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaietan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHUn; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

originales a la persona interesada, previa su identificación ante la persona funcionaria y otorgamiento de consentimiento expreso para esta actuación, de conformidad con la resolución del Secretario General de la UPV/EHU de 28 de abril de 2021, por la que se aprueba la instrucción sobre oficinas de asistencia en materia de registros, la presentación en la UPV/EHU de solicitudes, escritos u otras comunicaciones a través de persona funcionaria pública habilitada y el registro de personas funcionarias públicas habilitadas.

Erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoen zerrenda ikusgai dago UPV/EHUko ikastegietako idazkaritzetan, Leioako Errektoregoko eraikinean, Bilboko Larrako Etxean, Arabako Campuseko Errektoreordetzan (Gasteiz), eta Ignacio Mª Barriola Ikasgelategian (Donostia). Era berean, Interneten ere ikus daiteke: https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/erregistro-orokorra. Bestalde, esteka honetan daude ikusgai bulegoen ordutegiak: https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/upv/ehuko-erregistro-orokorraren-ordutegia

La relación de oficinas de asistencia en materia de registros de la UPV/EHU estará a disposición del público en las Secretarías de los centros de la universidad, así como en las oficinas del Rectorado de Leioa, Larrako Etxea de Bilbao, Vicerrectorado de Campus de Álava en Vitoria y Aulario Ignacio M.ª Barriola de Donostia-San Sebastián, asimismo, puede consultarse en Internet: https://www.ehu.eus/es/web/idazkaritza-nagusia/erregistro-orokorra. El horario de las oficinas de asistencia en materia de registros puede consultarse en esta dirección https://www.ehu.eus/es/web/idazkaritza-nagusia/upv/ehuko-erregistro-orokorraren-ordutegia.

Eskaria posta bulegoetan aurkezten dutenek abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuko 31. artikuluak xedatutako moduan aurkeztu behar dute. Erregе dekretu horrek posta zerbitzuak arautzen ditu, eta honako hau xedatzen du:

Las personas interesadas que presenten su instancia en las oficinas de correos deberán hacerlo en la forma que establece el artículo 31 del Real Decreto 1829/1999, de 3 de diciembre, que aprueba el Reglamento por el que se regula la prestación de servicios postales, estableciendo lo siguiente:

*"Las solicitudes, escritos y comunicaciones que los ciudadanos o entidades dirijan a los órganos de las Administraciones Públicas, a través del operador al que se le ha encomendado la prestación del servicio postal universal, se presentarán en sobre abierto, con objeto de que en la cabecera de la primera hoja del documento que se quiera enviar, se hagan constar, con claridad, el nombre de la oficina y la fecha, el lugar, la hora y minuto de su admisión. El remitente también podrá exigir que se hagan constar las circunstancias del envío, previa comparación de su identidad con el original, en la primera*

*"Las solicitudes, escritos y comunicaciones que los ciudadanos o entidades dirijan a los órganos de las Administraciones Públicas, a través del operador al que se le ha encomendado la prestación del servicio postal universal, se presentarán en sobre abierto, con objeto de que en la cabecera de la primera hoja del documento que se quiera enviar, se hagan constar, con claridad, el nombre de la oficina y la fecha, el lugar, la hora y minuto de su admisión. El remitente también podrá exigir que se hagan constar las circunstancias del envío, previa comparación de su identidad con el original, en la primera página de la copia,*

*página de la copia, fotocopia u otro tipo de reproducción del documento principal que se quiera enviar, que deberá aportarse como forma de recibo que acredite la presentación de aquél ante el órgano administrativo competente.*

*Practicadas las diligencias indicadas, el propio remitente cerrará el sobre, y el empleado formalizará y entregará el resguardo de admisión, cuya matriz archivará en la oficina.*

*Los envíos aceptados por el operador al que se encomienda la prestación del servicio postal universal, siguiendo las formalidades previstas en este artículo, se considerarán debidamente presentados, a los efectos previstos en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre y en la disposición final 7ª, de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y su normativa de desarrollo."*

Eskaria atzerrian aurkeztuz gero, Espainiak herrialde horretan daukan ordezkaritza diplomatikoan eta kontsuletxean egin beharko da: ez du balio izango atzerriko posta zerbitzuaren bidez bidaltzeak.

## 4.- *Onartuen eta baztertuen zerrenda*

Eskariak aurkezteko epea amaiturik, unibertsitateko errektoreak plaza bakoitzerako onartuak eta baztertuak izan direnen behin-behineko zerrenda onartzen duen erabakia argitaratuko du UPV/EHUko errektoreak unibertsitatearen webgunean. Baztertutako lehiakideen kasuan adieraziko da zergatik izan diren baztertuak.

Baztertutako lehiakideek eta zerrendan agertzen ez direnek hamar eguneko epea izango dute, zerrenda webgunean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, erreklamazioak aurkezteko eta errakuntzak zuzentzeko. Epe horretan, baina, lehiakideek ezin izango dute merezimendu berririk aurkeztu. Lehiakide bat baztertu ahal izango da, behin-behinean, eskari ofiziala ez aurkezteagatik edo 2.1 oinarrian aipatutako agiriak ez aurkeztegatik; baina lehiakidea baztertua izan bada eskaria epez kanpo

*fotocopia u otro tipo de reproducción del documento principal que se quiera enviar, que deberá aportarse como forma de recibo que acredite la presentación de aquél ante el órgano administrativo competente.*

*Practicadas las diligencias indicadas, el propio remitente cerrará el sobre, y el empleado formalizará y entregará el resguardo de admisión, cuya matriz archivará en la oficina.*

*Los envíos aceptados por el operador al que se encomienda la prestación del servicio postal universal, siguiendo las formalidades previstas en este artículo, se considerarán debidamente presentados, a los efectos previstos en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre y en la disposición final 7ª, de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y su normativa de desarrollo."*

Téngase en cuenta, que, de presentar la instancia de participación en el concurso en el extranjero, deberá realizarse en la correspondiente representación diplomática u oficina consular de España, no siendo válida la presentada a través de los Servicios Postales en el extranjero.

## 4.- *Lista de personas candidatas admitidas y excluidas*

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, la Rectora/Rector de la UPV/EHU publicará en la página web de la universidad, una resolución que apruebe la lista provisional de personas candidatas admitidas y excluidas en cada una de las plazas convocadas, con indicación en este último caso de la causa de exclusión.

Las personas aspirantes excluidas u omitidas, podrán formular, dentro de los diez días hábiles siguientes al de la publicación de la lista provisional, reclamaciones y subsanar, en su caso, los defectos determinantes de su exclusión La persona candidata no podrá, dentro de este plazo, presentar nuevos méritos. Sin perjuicio de la exclusión provisional por no presentar la solicitud oficial o los documentos a que se refiere la base 2.1, serán motivos de exclusión insubsanables presentar la solicitud fuera del plazo establecido, no poseer los requisitos

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

aurkeztegatik, baldintzak ez betetzeagatik deialdian zehaztutako datan, edo tasa epearen barruan ez ordaintzeagatik, ez du izango errakuntza horiek zuzentzerik.

exigidos en la convocatoria en la fecha fijada, y no abonar la tasa de acceso en plazo.

Zuzenduta lehiakideak baztertzeko arrazoiak, edota lehiakideak zerrendan ez agertzea eragin dutenak, plaza bakoitzerako onartuak eta baztertuak izan direnen behin betiko zerrenda onartu eta argitaratuko da Irakasle-ikertzaileen Ataleko iragarki oholean eta unibertsitatearen webgunean.

Finalizado el plazo de subsanación de los defectos que motivaron la exclusión u omisión de las personas aspirantes, l aprobará y publicará la lista definitiva de personas aspirantes admitidas y excluidas al concurso en el tablón de anuncios del PDI y en la página web de la Universidad.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da Administrazioarekiko Auzien Epaitegian bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita (bat etorrita Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46. eta 8.2.1) artikuluetan adierazitakoarekin). Dena den, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote erabakia eman duen organoari hilabeteko epean.

Esta resolución agota la vía administrativa y contra ella se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su publicación, de conformidad con los artículos 46 y 8.2.1) de la Ley 29/1998, de 13 de Julio, de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa. No obstante, las personas interesadas podrán interponer recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes ante el órgano que la dictó.

Errekurtsoa jarri arren, prozesua ez da etengo.

La interposición de este recurso no suspenderá el procedimiento.

Edozelan ere, onartutakoen behin betiko zerrendan egongo dira eskariak aurkezteko epea bukatu aurretik baldintzak bete eta egiaztatu dituzten lehiakideak.

En todo caso, la lista definitiva de personas concursantes admitidas comprenderá todas aquellas que hayan obtenido y acreditado los requisitos exigidos con efectos dentro del plazo de presentación de solicitudes.

Lehiakideak onartutakoen zerrendan sartzeak ez du esan nahi, inola ere, unibertsitateak aitortzen dienik deialdiko oinarrietan eskatutako baldintza orokor edo espezifikoak betetzen dituztela.

La inclusión de aspirantes en las relaciones de admitidos/as al concurso no supone en ningún caso el reconocimiento por parte de la Universidad de que reúnen los requisitos generales o particulares exigidos en las bases de la convocatoria.

Hautaketa prozesuaren uneren batean administrazioak egiaztatuko balu lehiakideren batek ez duela betetzen lehiaketan zehaztutako baldintzaren bat, lehiakideari bost eguneko epea emango dio falta den agiria aurkezteko. Agiria aurkeztu ezean, lehiaketatik kanpo geratuko da behin betiko. Edozelan ere, lehiaketan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak lehiaketan parte

Si en cualquier momento del procedimiento selectivo por la Administración convocante se comprobase que alguna persona aspirante carece de alguno de los requisitos exigidos para concurrir, se le concederán 5 días para aportar la pertinente acreditación documental. De no hacerlo así, quedará definitivamente excluida. En cualquier caso, el cumplimiento de los requisitos deberá estar referido siempre a la

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

hartzeko ezarritako epemuga iristerako bete beharko dira.

### 5.- Epaimahaia

Deialdi honetako lehiaketak kasuan kasuko epaimahaiek ebatziko dituzte.

Epaimahaien osaera eta funtzionamendua zehaztuta daude Irakasle Laguntzaile Doktoreak Hautatzeko Arautegian. Epaimahaiko kideak aukeratzeko zozketa 2025eko urtarrilaren 8an egingo da IIPen Deialdi eta Lehiaketa Atalean.

Arautegi honetan zehaztuta ez dauden gaietarako, epaimahaiak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak kide anitzeko organoei buruz zehaztutakoari jarraitu beharko dio.

### 6.- Probaren nondik norakoak

Proba jendaurrean egingo da, UPV/EHUren lokaletan. Lehiakideek eta UPV/EHUkoak diren batzordeko kideek modu presentzialean jardungo dute eta UPV/EHUtik kanpoko hiru pertsonek, ahal dela, modu telematikoan. Lehiakide bakoitzak 60 minutu izango ditu, gehienez, bere irakaskuntza eta ikerketa proiektua aurkezteko. Ondoren, epaimahaiak lehiakide bakoitzarekin eztabaidatu ahal izango du, gehienez ordubetez, aurkeztutako irakaskuntza eta ikerketa proiektuaren gainean eta, aukeran, alegatutako eta egiaztatutako merezimenduen gainean.

Lehiakideren batek proba euskaraz egin nahi duela adierazi badu eskarian, bermatuko da epaimahaia osatzen dutenek autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan jarraitu ahal izango dituztela probak, eta horretarako behar diren baliabideak jarriko dira. Horrelakoetan, ahalegina egingo da epaimahaiko kideetako bat, gutxienez, elebiduna izan dadin.

Lehiakide bakarra aurkezten bada, ahozko aurkezpenetik eta eztabaidatik salbuetsi ahal izango du epaimahaiak, kide guztiak ados badaude, eta lehiakidea izendatzeko

fecha de expiración del plazo fijado para solicitar la participación en el concurso.

### 5.- Comisión Evaluadora

Los Concursos objeto de esta convocatoria serán resueltos por las correspondientes Comisiones de Evaluación.

La composición y el funcionamiento de las comisiones evaluadoras se encuentra regulado en el Reglamento del Proceso de Selección del Profesorado Ayudante Doctor. El sorteo de los miembros de la Comisión de Evaluación se celebrará el día 8 de enero de 2025 en la Sección de Convocatorias y Concursos del PDI.

Las actuaciones de las Comisiones se acomodarán, en todo lo no expresamente previsto en la presente convocatoria, a las disposiciones contenidas para los órganos colegiados en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

### 6.- Realización de la prueba

La prueba será pública y se desarrollará en las dependencias de la UPV/EHU y contará con la asistencia presencial de las personas aspirantes y de los miembros de la UPV/EHU de la Comisión, y con la asistencia, preferiblemente telemática, de las tres personas externas a la UPV/EHU. Cada concursante dispondrá de un máximo de 60 minutos para exponer su proyecto docente e investigador. Posteriormente, la Comisión podrá debatir con cada concursante, durante un tiempo máximo de una hora, sobre el proyecto docente e investigador presentado y, opcionalmente sobre los méritos alegados y acreditados.

En los casos en que alguna persona concursante haya hecho constar en su solicitud su voluntad de realizar la prueba en euskera, se garantizará que quienes componen la Comisión puedan atender el desarrollo de las pruebas en los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma, facilitando los medios precisos para ello. En este supuesto se procurará, además, que al menos uno de los miembros de la Comisión sea bilingüe.

En caso de comparecer una única candidata o un único candidato, la Comisión, excepcionalmente, podrá, si existe unanimidad al respecto, eximirlo de la exposición oral y

proposamena egingo da zuzenean. Halakoetan, hartutako erabakia arrazoitu beharko du epaimahaiak.

Proba non, noiz eta zein ordutan egingo den jakinarazteko iragarkia unibertsitatearen webgunean argitaratuko da. Iragarritako leku, egun eta orduan bertaratzen ez diren lehiakideek plaza lortzeko eskubide guztiak galduko dituzte.

### *7.- Epaimahaiaren proposamena*

Proba egin ondoren, epaimahaiak txosten arrazoitu bat emango du, lehiakide bakoitzak baremoko atal bakoitzean merezi duen balorazio kuantifikatuari buruzkoa, eta puntu gehien lortzen dituen lehiakidea proposatuko du. Nahi izanez gero, ordezkoak ere proposatu ahal izango ditu.

### *8.- Kontratua formalizatzea*

Kontraturen bat eskainiz gero, hautagaiak hiru eguneko epea izango du kontratua sinatzeko, eskaintza egin zaion egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Epe horretan interesduna ez bada kontratua sinatzera agertu, irakasle laguntzaile doktore kontratuari uko egin diola ulertuko da eta, ondorioz, zerrendako hurrengoari deituko zaio.

Oso kasu berezietan, eta Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak hala erabakiko balu, luzatu egin ahal izango da aurreko atalean adierazitako epea.

***IZARTXO (*) bat daukaten plazak sortuko dira LASTER hutsik geratuko diren plazak aldatzearen ondorioz, titularrak borondatezko erretiroa hartuko duelako. Kasu horietan, plaza berriaren kontratuaren formalizazioa eta hasiera data egongo dira baldintzatuta irakasleak erretiroa hartzen duen datari.***

Kontratuaren baldintzak dira honako hauetan zehaztutakoak: 2/2023 Lege Organikoa, martxoaren 22koa (2023ko martxoaren 23ko BOE); UPV/EHUko lan kontratudun irakasle eta

debate de la prueba pública y realizar directamente la propuesta de nombramiento a su favor, debiendo justificar su decisión.

El lugar, la fecha y la hora establecido por la Comisión de Selección para la realización de la prueba, se anunciará en la página web de la universidad. Las personas candidatas que no se presenten en el lugar, fecha y hora reseñados decaerán en sus derechos a la adjudicación de la plaza.

### *7.- Propuesta de la Comisión Evaluadora*

Una vez realizada la prueba, la Comisión Evaluadora emitirá un informe razonado sobre la valoración cuantificada que le merece cada una de las personas concursantes, en cada uno de los apartados del baremo y propondrá a quien haya obtenido mayor puntuación, pudiendo además proponer suplentes.

### *8.- Formalización del contrato*

Las personas candidatas a quienes se les hubiera ofertado el contrato dispondrán de un plazo de 3 días a partir del siguiente a aquel en que les sea comunicada dicha oferta para formalizar el mismo. En el supuesto de que en el referido plazo no se presentaran para la formalización del contrato, se entenderá que renuncian al contrato de profesorado Ayudante Doctor y, en consecuencia, se procederá al llamamiento de la siguiente persona aspirante que figure en la relación de personas candidatas suplentes.

En atención a circunstancias excepcionales cuya concurrencia corresponde apreciar al Vicerrector/a de Personal Docente e Investigador el plazo al que se refiere el apartado anterior podrá ser prorrogado.

***Las plazas señaladas con un ASTERISCO (*), tienen su origen en la transformación de otras que quedarán PROXIMAMENTE vacantes por jubilación voluntaria de su titular. En estos casos, la formalización y la fecha de inicio del contrato convocado, estarán supeditadas a la efectiva jubilación de la profesora/profesor.***

Las condiciones contractuales son las previstas en la Ley orgánica 2/2023, de 22 de marzo (BOE de 23 de marzo de 2023), en el Convenio Colectivo del Personal Docente e Investigador Laboral de la

ikertzaileen lan Hitzarmen Kolektiboa (2010eko abenduaren 31ko EHAA); eta 40/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleen eta ikertzaileen araubideari buruzkoa (martxoaren 18ko EHAA). Lan kontratuetan sei hilabeteko probaldia ezarriko da.

Txanda kontratuetarako egingo diren kontratuak beti egongo dira baldintzatuta ordezkatuko den langilearen benetako erretiro partzialari, eta ondoriorik gabe geratuko dira hori gertatzen ez bada.

### 9.- *Deialdia argitaratzea*

Deialdi honi buruzko informazioa unibertsitatearen webgunean argitaratuko da eta unibertsitateko IIPen Deialdi eta Lehiaketa Atalean egongo da eskuragarri, honako helbide honetan: UPV/EHU, Errektoregoa, 1. solairua, Leioako Campusa (Bizkaia).

### 10.- *Errekurtsoak*

Deialdi honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jarri aurkeztu zaio errektoreari, hilabeteko epean; bestela, zuzenean jarri ahal izango da administrazioarekiko auzi errekurtsoa jurisdikzio horretako Bilboko epaitegian, bi hilabeteko epean, lehiaketa webgunean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Leioa, 2024ko abenduaren 20a.

UPV/EHU (BOPV de 31 de diciembre de 2010) y en el Decreto 40/2008, de 4 de marzo, sobre régimen del personal docente e investigador de la UPV/EHU (BOPV de 18 de marzo). En los contratos de trabajo se establecerá un período de prueba de seis meses.

Los contratos convocados para la formalización de contratos de relevo estarán en todo caso condicionados a la efectiva jubilación parcial de la persona trabajadora sustituida, quedando sin efecto si ésta no llega a producirse.

### 9. Publicidad de la convocatoria

La información referente a esta convocatoria será publicada en la página web de la UPV/EHU y facilitada en la Sección de Convocatorias y Concursos de PDI de la universidad, Edificio Rectorado, 1ª planta, Campus de Leioa (Bizkaia).

### 10. Recursos

Contra la presente convocatoria cabe la interposición de recurso potestativo de reposición, ante la Rectora/Rector, en el plazo de un mes, o bien directamente recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de dicha jurisdicción de Bilbao, en el plazo de dos meses, a partir del día siguiente al de su publicación en la página web.

Leioa, a 20 de diciembre de 2024.

ERREKTOREA/LA RECTORA

Izenpea eskuordetuta (Errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakia, 2021/02/12ko EHAA), Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea / P.D. de firma (Resolución de la Rectora de 28 de enero de 2021, BOPV 12/02/2021), el Vicerrector de Personal Docente e Investigador.

30628936C FEDERICO RECART (R: Q4818001B)

Firmado digitalmente por 30628936C FEDERICO RECART (R: Q4818001B)
Fecha: 2024.12.20 11:14:44 +01'00'

Iz.: / Fdo.: Federico Recart Barañano